

Oporren ondoren eta udazkenerako

EAJ-PNV dagoeneko zatiketarako heldua

Normalean basamortu tankerakoa izan ohi den abuztu honetan oporrak egunkarien gainean pasatzera kondenatu gaituzte. PNVren krisiak barealdi bat ezagutzeko partez aurrerapauso garrantzizkoak eman ditu, Ipar Euskadira ihesi joandako errefuxiatu politikoen egoerak askok irrebertsibletzat jo duten larriagotze batera jo du eta, azkenik, Ness lakuko munstroaren lekua betetzeko sumatu ote duten zalantzaz utzi gaituen negoziaketa-kontakto ixtorio guzti horrek aldean eduki gaitu.



Ardanzaren gobernua «gestio gobernua» izanen zela iragarri zuten; bere agintea burutuko duenik ez dirudi.

EAJ-PNVren krisiak aldaketa funtsezko bat egin du uda honetan. Udaberri honetara arte, krisian zeuden bi taldeen arteko ezberdintasunak eta asmoak aztertzen ibili da mundu guztia, eta kronista politikoa batik bat. Uda honetatik aurrera, alderdia hausteko bi taldeek zein jokabide daramaten eta eramango duten igerri nahian gabiltza guztiok.

Arabarrek hartu dute protagonismoa

«Garaikozaleak» eta «Arzalluztarrak» zirenek hasieran zituzten polemiketatik, LTH famatu hark estalki gisa-edo sortutakoetatik, «kritikoak» eta «ofizialistak» izatera pasa ziren, eta PNV bezalako alderdi batean —eta Euskal Herriak dituenak bezalako baldintzetan—

oso zail ikusten zen zatiketa piskanaka hezurramituz etorri zen. Nahiz eta, orduan bezala orain ere, bi taldeen osaketa erabat argitu gabe egon.

Amaiezina dirudien krisi honen protagonismoa ere eskuz behin eta berriz aldatu da, eta hasieran Nafarroakoak baziren egunero paperetan azaltzen zirenak, Gipuzkoarrek hartu zuten gero Arzalluzen aparatoaren kontrako abangoardia. Baina uda honetan arabar kolorea hartu du krisiak. Garaikoetxeak berak aitortu du harrituta geratu dela arabarrek.

Nafatar espulsatuek talde bezala jarraitzen ere nahiko lanak dituztelarik, Gipuzkoako kritikoak aparato baten nagusi izateak dakartzan erresponsabilitatearekin kontuz ibiltzera behartuta, Bizkaiko kritikoak antza denez kokilduta, Arabakoak aurkitu dira hausketa eskuartean zutela. Beren lurraldean gehiengoa izanik, ez dira asko Arabako jeltxer kritikoak, baina abuztu honetatik horiek ematen diote «kolorea» esziarioi.

Alderdi berriaren irudia margotuz

«Askapen nazionala» eta «askapen soziala», «independentzia», «abertzale eta progresista»... Alderdi berriaren izakera piskanaka itxura hartuz doa. Sozialistekiko legealdi tratuak sinbolizatzen duen politikaren eta Herri Batasunaren arteko espazio bat ikusten dute hor kritiko arabarrek, eta horri forma ematen hasi zaizkio.

Arabarrak aipatzean mundu guztiak Gasteizkoak darabiltza ahotan. Hauek, izan ere, probintzian gehiengoa eduki arren gehienak batzoki batean bilduta